

SUTU AMAZONIA EUROPAK, TXINAK ETA IPARRAMERIKAK ZUR, MINERAL ETA OKELA GEHIAGO BEHAR DUTE

Mundua azken hamarkadotan ohituta zegoen uztailetik urrira –tropikoko lehor sasoian– Amazonian urtero pizten dituzten sute handiei ezikusia egitera. Baina aurtengoan abuztu amaierarako iazko kopuruak %77an ugartuak ziren Brasilen eta Boliviak ikusi du bere 730.000 hektarea kiskaltzen. Planetak klimaren egonkortasunak eta bertako indigenek biziraupena dauzkate jokoan... baina gaitz dirudi herrialde aberatsek azpi-kontratutako suntsiketa gelditzea.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Michael Williams geografia irakasle iparramerikarrak 1992an plazaratutako *Lurra planeta deforestatzen* liburuan (*Deforesting the Earth. From Prehistory to Global Crisis*) luze eta zabal azaldu zuen beste oihan tropikal gehienek bezala Amazoniakoak ordurako nozitzen zuen hondamendia. 453. orrialdean ageri da NASAk zabaldutako argazki bat, oin honekin: “Brasilgo Rondonia eta Mato Grosso estatuak suteen sasoian, 1984ko abuztuan. Basoak eraistean sortutako suen ke-lainoa baino gorago iristen da kearen motots terminoa, argazkia egin duen *Space Shuttle* espazio-ontziaren kamera alderantz”.

35 urte geroago, zirrara handiagoa lortu dute NASAREN beste satelite batek Amazoniako suteei egindako argazkiek. Mundua ohituta dago lehorre sasoian Amazonia ketan ikusten, jakina baita basoak *garbitzeko* erabiltzen dituztela: zura ateratzeko, aziendentzako bazkalekuak sortzeko eta meategi berriak zuzaltzeko. Aurtengoan, ordea, sateliteen jarraipenak ohartarazten zuen erreketak ohi baino ugari eta handiagoak izaten ari direla.

Gertatzera zihoanaren berri bazuen aurretik Brasilgo Gobernuak, *Globo Rural* hedabideak kontatu eta European Ivan Roy kazetariak zabaldu duenez. Amazonia kiskaltzen ari diren suteetako asko lurjabe brasildar handiek piztu dituzte, oihana eraisteko beren eskubidea aldarrikatu, Bolsonarori atxikimendua erakutsi eta, bide batez, aurreko

gubernuek legez kontrako baso-eraketaengatik ezarritako isunak ezabatzea lortzeko. “Whatsapp bidez koordinatu dira erreketak antolatzeko. Zehazki Para estatuan 70 *fazendeiro* (lurjabe handi) eta hainbat *grileiro* (lurrak legez kontra eskuratzeko jabego tituluak faltsifikatzen berezituak) abuztuaren 10erako antolatu zuten *Dia do Fogo*, suaren eguna”. Sute kriminalok BR 163 errepide inguruetan eragin zituzten. BR163ak zeharkatzen du Brasilen menpeko Amazoniaren eremu handi bat, lotuz soro eta abelazkuntza erraldoiak Amazonas bazterreko portuekin.

Oihartzun bila bazebiltzan, lortu dute. Egun gutxiren buruan, mundu osoak ikusiak zituen oihan amazoniarra garrantzi erakusten zuten irudiak. Espektakuluaren arauak zorrotz betez, politikariek erantzun behar izan zioten jendeen artean hondamendiak eragindako zirrarrari eta Miarritzeko G7 gailurreraino iritsi zen gaia, Emmanuel Macron lehendakari frantsesaren eta Jair Bolsonaro Brasilgoaren arteko taldea ezagunarekin.

Inoizko urterik beroenetako bat ezagutzen ari den European Brasilek klimaren egonkortasunerako daukan garrantziagatik kezkatzen ditu herriarrak. *Le Monde Diplomatique* bere atleasan azaltzen duenez, munduko oihan tropikalen herena dauka, ur gez guztia %20 eta Amazoniak bereganatzen du planeta osoak irents dezakeen CO2 guztia hamarrena. Orriotan bertan

uztailean kontaktzen zenez, (*Viktor Gorkov, biziarentzat CO2-a baino larriagoa oihanen suntsitzea dela erakutsi duena*) Lurraren klimaren egonkortasunak asko dauka jokoan Amazonian.

Hala ere, klimagatik kezkatzen diren herrialde aberatsetako herriarrak kontraesan larrian bizi dira. Jakina da herrialde aberatsek beren aurrerapena lortu dutela, besteren artean, etxean agortutako oihanak eta horietako aberastasunak ordezkatzeko eremu berriak urruti aurkitu eta ustiatuz. Gaur oraindik Europako basoek –mende luzeetako deforestazioak laga dituenak– bizirik diraute europarrek oihanen *suntsiketa deslokalizatu* dutelako.

Orain, aldiz, europarrek munduko oihan tropikalek zutik irautea nahi dute, klimaren zorrotz haiek ere harapatzen dituelako gero eta gehiago. Baina nola saihestu hondamendia orain bezala kontsumituz urruneko triskantzaz ekoiztutako elikagaiak, etxegintzako zurak, teknologia berriak... eta aurre egin barik Europako –Euskal Herria barne– eremu desertizatuak berriro berdetzeko lanari?

TROPIKOKO ERRAUTSAK GURE ETXEAN

Brasilek 215 milioi abelburu dauzka, horietatik %40 oihanari kendutako larreetan bazkatuz. Baina bertako ganaduez gain urrunekoak ere elikatzen dituzte duela gutxi arte baso primario izan eta orain soro bihurtuek. Soja plantazioak gero eta aurrerago doaz Amazonas iba-



AMAZONIA 1989

1930EKO HAMARKADATIK
AURRERAPEN ETA
NAZIONALISMO AIPAMENEZ
JUSTIFIKATZEN DU ESKUIN
BRASILDARRAK AMAZONIAKO
OIHANAREN SUNTSIKETA.

rrean gora eta Brasilek laster kendu behar die labore horren ekoizpenean txapeldun titulua AEBei. Soja transgenikoa, noski, %90ean. Mato Grosso estatua bakarrik iaz 30 milioi tona bildu omen zuen, gainerako soja brasildarrekin batera erabiliko direnak bai bertako behiak gizentzeko eta bai esportaziorako, nagusiki Txina eta Europar Batasunera, hemengo oilo, behi eta zeriak gizentzeko.

Amazoniako txikizioaren eta europarron ahoaren arteko bidea iradokitzen du Iñigo Seguro eta Jakoba Errekondoren azken hitzaldiaren tituluak: *Barratzetik platerera sortzen dugun paisaia*. Paisaia negargarri berriak eragiten ditu biktima hurbilak ere, sobera aipatzen ez direnak: betidanik eremuotan bizi ondoren kanporatzen dituzten indigenak, inbasoreei aurre egiten ausartzen diren

milite eta gidariak eta, oro har, etxalde erraldoi eta meategietan baldintza gogorretan lan egitera behartutakoak. Bolsonaroren aroan, BR163 errepideak aurrera egin ahala ugarituz doazenak.

Boliviak ere nozitu ditu suteak, Chiquitaniako oihan bereziko 700.000 hektarea kiskali dituztenak abuztuaren 18tik 23ra bitartean, bi urtetan erretzen den guztia adina. Lekuko aditu batzuek diote bi mende beharko direla munduko oihan tropikal idor handiena zen hori lehengoratzeko, hain dira bereziak han bizi diren espezie eta ekosistema.

Chiquitaniako hondamendia, bertako prentsak dioenez, urtero eremuak horrela garbitzen dituzten nekazariak eragin dituzte, piztu ondoren haien garrek ihes eginda aurtengo tenperatura eta idorte bereziengatik. Baina agian ez da kasualitatea ere hori gertatu izana Evo

Moralesek haragi esportazioak handitzeko neurri berriak iragarri eta gutxira. Uztailean plazaratutako *decreto supremo* baten bidez, Moralesen gobernuak El Beni departamenduko lurjabe handiei baimendu zien 4,5 milioi hektarea berri erabiltzea –zuhaitz eta basoak eraitsita-aziendak bazkatu eta haientzako laboreak ekoizteko.

Hainbat gizarte erakundek egin dute protesta lege berriak konstituzioa urratzen duelakoan. Chiquitaniako desatreak naturari eragindako kalteez gain hankaz gora ipini du Santa Cruz inguru osoa. Moralesek lehenbizi ukatu eta azkenean onartu behar izan zuen nazioarteko laguntza. Alex Villca buruzagi indigenak esan die kazetariari: “Erantzukizunak eskatu behar zaizkio Evo Morales presidenteari, herritar indigenei eta Ama Lurrari kalte egiteagatik”. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i